



Registro de Anomalías Congénitas
de la Comunidad Autónoma Vasca
Euskal Komunitate Autonomoko
Sortzetiko Anomalien Erregistroa

eurocat
european surveillance of
congenital anomalies

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SORTZETIKO ANOMALIEN ERREGISTROA



2004 – 2009ko MEMORIA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SANIDAD



Aurkibidea

Sarrera.....	3
Helburuak.....	4
Materiala eta metodoak.....	5
Eraitza orokorrak.....	7
Eraitzak azpitaldeka.....	8
Hilkortasunaren bilakaera.....	9
Kalitate-adierazleak.....	9
Iruzkinak.....	10
Eskerrak ematea.....	11
Taulak.....	12
Eranskinak.....	29



Sarrera

XX. mendearen bigarren zatiaz geroztik, osasunaren arloan hobekuntza handiak izan dira. Horren erakusgarria da, esaterako, amen eta umeen hilkortasunak etengabe behera egin izana; ondorioz, ama-umeen osasun-helburuak aldatu behar izan dira. Hori horrela, lehentasunak ere aldatu dira. Izan ere, gaur egun, ez dira lehentasun arrisku obstetrikokoak eta haurren infekzioak (bai, ordea, oraindik, garapen-bidean dauden herrialdeetan), baizik eta istripuak eta sortzetiko anomaliak, horiek baitira gure inguru sozio-ekonomikoetako herrialde guztietako haurren gaixotasunen eta heriotzen lehen kausa.

Sortzetiko anomaliak, zehazki, herrialde garatuetan izaten diren gaixotasun askoren eragileak dira. Horregatik, beharrezkoa da administrazio publikoek, osasunaren profesionalek eta herritarrek berek erantzukizuna hartzea anomalia horien prebentzioan, eta saihestu daitezkeen kausak gutxitzeko ahalegin handiagoa egitea.

Bi arrazoi nagusi daude sortzetiko anomalien erregistroa egiteko:

1. **Eragin teratogenikoak hobeto identifikatu ahal izatea.** Talidomida eta errubeola teratogeno arriskutsuak zirela ikusi ondoren, ingurumeneko kausekin zerikusia zuten sortzetiko anomaliak ikertu eta kontrolatu eta eragin teratogeniko berriak ahalik eta goizen antzeman ahal izateko sortu zen sortzetiko anomalien erregistroa. Erregistroa azterketa genetikoak egiteko ere erabiltzen da, eta, gero eta gehiago, sortzetiko anomaliak eragiten dituzten faktore genetikoak eta ingurumenekoak arteko erlazioa ikertzeko. Sortzetiko anomaliak berez duten garrantziagatik ez ezik eragin teratogenikoekin zerikusia duten beste haurdunaldi patologiko batzuen adierazle gisa ere erregistratzen dira; eragin horien artean daude berezko abortuak edo erraz kontrolatu ezin diren trastorno neurokonduktual batzuk.
2. **Osasun-zerbitzuak planifikatu eta ebaluatzea.** Horren baitan daude estrategia batzuk, lehen mailakoak, hala nola hodi neuraleko akatsen prebentziorako azido folikoa ematea haurdun gelditzean, eta errubeolaren aurkako txertoa, sortzetiko errubeolaren sindromeari aurre egiteko; bigarren mailakoak, screening delakoa eta jaio aurretiko diagnostia erabiliz; eta hirugarren mailakoak, pediatria-zerbitzuak, errehabilitazioa eta beste zenbait erabiliz. Populazioaren erregistroak tresna garrantzitsuak dira osasun-zerbitzuak ebaluatzeko; izan ere, populazio osoa jasotzen dute, eta ez zerbitzu espezialistetako unitateen emaitzak, emakume edo haur jakin batzuk soilik hartzen dituztenak, alegia. Jaio aurretik diagnostikatutako anomalien proportzioari, jaio aurreko baheketan sortzetiko anomaliatzat berretsitako emaitzen proportzioari eta jaio aurretik diagnostikatu eta haurdunaldia borondatez etetea eragindako kasuen proportzioari buruzko datuak ematen ditu erregistroak, bai eta jaio aurreko baheketarako metodoei buruzko informazioa ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko sortzetiko anomalien erregistroa (EAESAE) 1989an jarri zen abian, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren ekimenez, eta Euskal Herriko Pediatria Elkartearen lankidetzaz.



EAESAE EUROCATen barruan dago: Sortzetiko anomalien zaintza epidemiologikorako oinarritzko populazio-erregistroen Europako sarea da. Sare horrek, Belfasteko bere erregistro zentraletik, Europako 23 herrialdetan metodologia bera erabiltzen duten oinarritzko 43 populazio-erregistroren lana koordinatzen du. Urtean 1,7 milioi jaiotza kontrolatzen ditu guztira.

Txosten honetan 2004-2009 urteen artean erregistroan jasotako datuen analisi bat aurkezten da.

Helburuak

Hauek dira EAESAEn helburu nagusiak:

1. Gure erkidegoko sortzetiko anomaliari buruzko informazio epidemiologikoa ematea.
2. Eragin teratogeniko berriei buruzko ohartarazpen goiztiarra egitea.
3. Lehen mailako prebentzioaren eraginkortasuna ebaluatzea.
4. Jaio aurreko baheketa egiteak zer eragin duen ebaluatzea.
5. Lankidetzaren sare bat eta azpiegitura bat eskaintzea, sortzetiko anomalien kausak eta prebentzioa ikertzeko, eta anomaliak dituzten haurrei tratamendua eta zaintza eskaintzeko.
6. Informazioa eta baliabideak eskaintzeko egitura izatea jendearentzat, osasun-langileentzat, edo eraginak edo arrisku-faktoreak ikertzen dituzten langileentzat.

Materiala eta metodoak

Aztertzen den populazioa eta jaiotza-motak

2004-2009 urteetan EAEn izandako jaiotza guztiak aztertu dira. Gutxienez 500 gramoko pisua eta 22 asteko ernaldi-adina izan eta sortzetiko anomaliak dituztela bizirik edo hilik jaiotakoak ere sartu dira, bai eta jaio aurreko diagnosian sortzetiko anomaliak aurkitu eta haurdunaldia borondatez etendakoak ere. Ez dira berezko abortuak jaso.

Erregistrotik at gelditu dira, halaber, EAEn bizi ez diren amen borondatezko haurdunaldi-eteteak eta jaiotzak.



Kasuaren definizioa

EUROCATen metodologiaren arabera, sortzetiko anomaliatzat jotzen dira egiturazko akatsak (sortzetiko malformazioak, deformazioak, trastornoak eta displasiak) nahiz anomalia kromosomikoak. Hortik kanpo geratzen dira anomalia txiki batzuk, isolatuki agertzen badira (ikusI. eranskina). Beste anomalia batzuk ere ez dira jaso, hala nola jarraipena egin eta bizitzako lehen urtean zuzendu direla egiaztatu diren batzuk, esaterako, hidrofrenosi batzuk edo zenbait kardiopatia (aurikularen edo bentrikuluen arteko komunikazioak edo birika-balbularen estenosisia).

Jaio aurretik, jaiotzean, eta bizitzako lehen urtean diagnostikatu diren eta hil ondoko azterketan detektatu diren anomalia guztiak jaso dira. Diagnostika egiteko azterketa fisikoak eta behar diren eta eskura dauden metodo osagarriak erabili dira.

Informazio-iturriak

Sortzetiko anomalien balizko kasuak identifikatu eta berresteko, eta ondoren haien analisia egiteko, informazio-iturri hauek erabili dira:

- **DGOB** (ospitaletako altaren Datuen Gutxienezko eta Oinarrizko Bilduma). DGOBri esker, EAEko edozein ospitaletan (publikotan nahiz pribatutan) alta jaso eta diagnosien artean sortzetiko anomalia-koderen bat duten jaioberri guztien zerrendak jaso dira, bai eta EAEko edozein ospitaletan (publikotan zein pribatutan) alta eman eta diagnosien artean borondatezko haurdunaldi-etetearen kode bat (GNS-9 kodetzearen arabera) duten emakume guztien zerrenda ere.
- **EAEko haur jaioberrien erregistroa.** Erregistro horren bitartez, sortzetiko anomaliarekin bizirik jaiotako eta hilda jaiotako haurren zenbait kasu susmagarri eta beste zenbait berretsitako kasu lortu dira, klinikoek detektatu eta erregistroan sartu ondoren.
- Sare publikoko ospitaletako **kontsulta-erregistroa:** obstetrizia, kardiologia, nefrologia, oftalmologia...
- **Jaio aurreko ekografien erregistroa.**
- **Haurdunaldien borondatezko etenduren erregistroa.**
- **Genetika-laboregietan erregistroak,** amniozentesien eta jaioberrien emaitzak proba berezien (molekularrak, kariotipoak) emaitzak ematen dituztenak.
- **EUSTAT** (Estatistikako Euskal Institutua). Izendatzailea kalkulatzeko, bizirik eta hilik jaiotakoen kopuru osoa ematen du Eustatek, eta guztizkoak, kontuan hartuta amaren adina, bosturtekoa, lurralde historikoa, eta osotasuna. Eustatek jasotako datuak ere azterlan jakin batzuetarako erabiltzen dira; adibidez, ama nerabeen multzoan sortzetiko anomaliak aztertzeko.



- **Historia klinikoak.** Sortzetiko anomalien erregistroko informazioa jasotzeko haurren eta amen historia klinikoak aztertzen dira (ikus II. eranskina).

Anomaliak kodetzea

Eurocaten metodologiari jarraiki, sortzetiko anomaliak kodetzeko gaixotasunen nazioarteko sailkapen hau erabili da: GNS-10-BPA (British Pediatric Association). Gehenez ere, zortzi anomalia eta sindrome bat erregistratu dira kasu bakoitzeko. III. eranskinean dator, Eurocatek ezarritakoaren arabera, anomalien azpimultzoen sailkapena.

Datuen analisia

Anomalia bakoitzaren eta anomalien azpimultzoen prebalentzia-tasa kalkulatu da. Kasu bakoitzak anomalia bat edo batzuk izan ditzake, eta anomaliatako bakoitza azpimultzo bakoitzaren barruan kontatzen da. Adibidez, 21. kromosoman eragina duen trisomia eta giltzurrun-agenesia duen kasu bat kromosomopatia gisa eta giltzurrun-anomalia gisa kontatzen dira da. Beraz, ezin da anomalia-moten kopuruen batuketa egin kasuen guztizkoak lortzeko.

Prebalentzia-tasa, guztira, honela adierazten da: zenbakitzailean, anomaliak dituztela bizirik jaiotakoan, hilik jaiotakoan eta eragindako abortuen kopuruaren arteko zatidura, eta izendatzailean, anomaliak dituztela edo gabe bizirik eta hilik jaiotakoan kopuru guztia.

Emaitza orokorrak

2004-2009 aldian, guztira izandako 122.721 jaiotzetatik, sortzetiko anomaliak zituzten 2.670 kasu identifikatu dira (II. taula). I. taulan ikus daiteke urte bakoitzeko eta jaiotza-motaren arabera izan duten banaketa. Identifikatutako kasu guztietatik % 65 bizirik jaio dira, % 1 hilik, eta %34 haurdunaldia borondatez eten dutenak dira.

III. taulan ageri da sortzetiko anomalien urteroko prebalentzia-tasa. Jaiotza-mota guztietako (bizirik jaiotakoak, hilik jaiotakoak eta haurdunaldiaren borondatezko eteteak) anomalien prebalentzia globala da: 10.000 jaiotzetatik 217.

I. irudian ikusten dira jaio aurretik, jaio ondoren eta urte horietako une ezezagun batean diagnostikatutako kasuen kopurua eta ehunekoa. Urte guztiak kontuan hartuta, kasuen % 53 jaio aurretik diagnostikatu zen, eta kasuen % 46,07, berriz, jaio ondoren.

IV. taulan ageri dira anomaliak zer unetan atzeman ziren, urte eta jaiotza-mota bakoitzeko. Jaio osteko aldian atzemandako anomalien artean (% 46,07), gehienak (% 26,14), jaiotzeko unean diagnostikatu ziren, % 8,20 bizitzako lehen



astean, % 6,70 bizitzako 1-12. hilabete bitartean, % 4,87 1-4 astetara, %0,07 lehen urtearen ondoren, eta beste %0,07 jaiosteko aldi ezezagun batean.

Gehien diagnostikatu diren jaiosteko anomaliak dira anentzefalia, onomuin bifidoa, gastroeskisioa, onfalozefalia, giltzurrun-agenesia bilateral edo Prune belly, eta kromosomikoak: trisomia 13, trisomia 18, eta trisomia 21 gehienak. Gainerako anomalien jaiosteko diagnosiaren ehunekoa %74,3 da ezkerreko barrunbean hipoplasiarako, %74,2 hidrozefalietarako, %61,9 gorputz-adarren murrizketarako, %56,5 erbi-ezpainerako (ahosabaiko fisurarekin edo gabe), %55,7 hankokerretarako, %53,1 odol-hodi nagusien transposizioarako eta %50 hernia diaframatikorako. Ikusi V. taula.

Bizirik jaiotako artean, sortzetiko anomalien kasurik gehienak 30-34 urte bitarteko amen umeen artean izaten dira (788 kasu); ondoren, 35-39 urte bitarteko amen haurren artean (469 kasu). Bizirik jaiotako arteko kasu-kopururik txikiena 20 urtetik beherako amen artekoa da. Haurdunaldia borondatez eteteari dagokionez, kasurik gehienak 35-39 urte bitarteko emakumeenak dira (333 kasu) eta, ondoren, 30-34 urte bitartekoak (297 kasu). Bizirik jaiotakoekin gertatzen den bezala, 20 urtetik beherako emakumeek eteten dute gutxien haurdunaldia borondatez.

Ikusi II. irudia.

VI. taulak azpitalde bakoitzeko anomalien kopuru osoa erakusten du, eta horietako bakoitza zer ehuneko den. Anomalia kromosomikoak dira ohikoenak, eta, jarraian datoz bihotzeko, gernu-aparatuko, nerbio-sistemako eta gorputz-adarretako anomaliak.

VII. taulan ageri dira kromosomopatia ohikoenak, amaren adinaren eta jaiotza-motaren arabera. Ikusten denez, Down-en sindromea duten kasuen erdian baino gehiagotan, amak 35 urte edo gehiago ditu. Trisomia 18ri, Turner-en sindromeari eta Klinefelter-en sindromeari dagokienez, kasurik gehienak 30-39 urte bitarteko amek izan dituzte. Aipagarria da detektatu diren trisomia 13ren kasu guztiek haurdunaldia borondatez eten dutela.

VIII. taulan ikusten dira 2004-2009 aldian jaiotza-motaren arabera diagnostikatu diren sindrome, displasia eskeletiko, asoziazio, sekuentzia eta, sindrome izan gabe ere sindrome izena duten malformazioen zerrenda.

Emaitzak azpitaldeka

IX. taulan jaso da 2004-2009 aldian aldaketa gehien izan dituzten azpimultzoetako anomalia bakoitzaren kasu-kopurua.

Ikusten denez, nerbio-sistemaren anomalien kopuru osoak gora egin du aldi horretan. Mikrozeefalia eta hidrozeefalia izan dira gehien ugartu diren anomaliak.

Bihotzeko sortzetiko gaixotasunei dagokienez, gora egin dute azpimultzo honetako anomalia guztiek, nahiz bihotzeko sortzetiko gaixotasun larriek 2008. urtean. Urte horretan, odol-hodi nagusien transposizio, Fallot-en tetralogia eta aortaren hertsaduraren kasu gehiago egon dira. Aitzitik, behera egin dute



erregistroan jasotako birika-balbularen estenosi-atresiaren kasuek, azken bi urteetan.

Aho eta aurpegiko anomalien azpimultzoan, nabarmentzekoa da ahosabaiko fisurak nabarmenki behera egin dutela 2006. urtean, ziur aski azpierreregistro baten ondorioz edota anomalia hori bestela kodetu delako; izan ere, nahiz eta aho eta aurpegiko fisuren guztizkoa gainerako urteetan baino zertxobait baxuagoa izan, aldea ez da hainbestekoa.

Hipospadia-kasuen kopuruak gora egin du urte horietan, eta 2007. urtean izan dira kasu gehienak.

Gorputz-adarren anomalien erregistroari dagokionez, urteetan zehar pixkanaka gora egin duela ikusten dugu. 2007-2009 aldian, goiko nahiz beheko gorputz-adarren murrizketa gehiago egon da eta, halaber, aldaka-dislokazio edo -displasia gehiago. Bestalde, nabarmentzekoa da hankoker eta oin ekino-varorik ez dela izan 2004. eta 2005. urteetan. 2008. urtean jaso ziren anomalia horren kasu gehien.

Hilkortasunaren bilakaera

Anomalien erregistroan hilkortasunak zer bilakaera izan duen erakusteko, EAESAren hasieratik (1990-2009) eskura ditugun datu guztiak jaso ditugu. Hilkortasunari buruzko hiru aldagai daude, eta horiek sistematikoki jasotzen dira EAESAren : hilkortasuna bizitzako lehen urtean, hilkortasuna bizitzako lehen astea igaro baino lehen, eta hilkortasuna bizitzako lehen astea igaro ondoren.

II. irudian ikusten da hilkortasuna nabarmen jaitsi dela urte hauetan, bai lehen astea igaro aurreko hilkortasuna, bai guztizkoak.

Irudian, gainera, aldi horretako jaio aurretik detektatutako anomalien %aren bilakaera ere ageri da, bai eta sortzetiko anomaliak eragindako haurdunaldiaren borondatezko eteteen %arena ere.

Kalitate-adierazleak

Eurocaten erregistroko datuen kalitate-estrategiaren baitan, kalitate-adierazleak ezarri ziren 2005. urtean. Kalitate-adierazleak Eurocateko erregistro bakoitzerako kalkulatu dira. Erregistroaren osotasunari, diagnosiaren zehaztasunari, jasotako aldagaiak betetzeari, datuak bidaltzearen egokitasunari, eta izendatzaileei buruzko datuen eskuragarritasunari dagozkie.



X taulan, Eurocateko erregistro batzuen kalitate-adierazleak ageri dira, 2004-2008 aldiko datuekin.

Oro har, neurtutako adierazle guztiek kalitate ona erakusten dute, bai erregistroaren osotasunari dagokionez, bai diagnosiaren zehaztasunari eta datuen bilketari dagokienez. Hautatutako bihotz-anomaliek eta kromosomikoak ez diren sindromeek prebalentzia txikiagoa dutela ere aipatu nahi dugu. Eta, halaber, hilik jaiotako prebalentzia baxua ere bai.

Iruzkina

XI. taulan, alde batetik, erakusten dira anomalia bakoitzaren prebalentzia-tasak guztira (10.000 jaiotzako), eta, bestetik, anomalien prebalentzia-tasen guztizkoa (kromosomikoak alde batera utzita), bai EAESAEn atzemandakoak, bai Eurocateko erregistro guztietan atzemandakoak.

Sortzetiko anomalien maiztasuna kalkulatzeko prebalentzia erabiltzen da, eta ez intzidentzia, nahiz eta hori izan espero zitekeena. Nazioartean, prebalentzia erabiltzea gomendatzen da kalkulatzeko, jaiotzako akatsen garapenak eta agerpenak izaera biologiko konplexua duelako. Sorkuntzen denetik jaiotze bitartean gertatzen dira sortzetiko anomaliak. Beraz, anomaliak sortzeko adina duten sorkuntza guztiek osatuko lukete arrisku-populazioa (izendatzailea). Kalkulatzen da bost haurdunalditik bat galdu egiten dela, emakumeak berak haurdun zegoenik ere jakin gabe, eta haurdunaldien beste % 10-15 berezko abortu izaten dela. Gainera, berez galtzen diren haurdunaldi horien kopuru esanguratsu batek sortzetiko anomaliak izaten dituzte, eta horrek berak sortzen du bideragarria ez den enbrioia edo areagotu egiten du berezko abortua izateko arriskua. Anomalia horiek baztertuko bagenitu, ez genuke behar bezala kalkulatu anomalien intzidentzia. Horregatik erabiltzen da prebalentzia totala. Hau da bere definizioa: sortzetiko anomaliak dituztela bizirik eta hilik jaiotakoak eta une jakin batean borondatez etendako haurdunaldiak zati bizirik eta hilik jaiotako guztiak.

Bestalde, garrantzitsua da urte horietan erregistroan gertatu ahal izan diren alborapenak nabarmentzea. Hautapen-alborapenik garrantzitsuena informazio-iturri bat baino gehiago erabiltzea da. Izan ere, urteetan zehar, kasuak identifikatzeko datu-iturri desberdinak erabili izan dira; beraz, baliteke alborapen horrek eraginda egotea anomalia-kasuen kopuru osoa. Gainera, kodetze batzuk aldatu egin direlako eta sei urte hauetan anomalia horiek kodetu dituzten langileak ere aldatu egin direlako, litekeena da informazio-alborapenak eragin handia izatea jasotako anomalien prebalentzien aldaketan.

Oro har, oso antzekoak dira EAESAeko eta Eurocateko tasak, baina anomalia jakin batzuetan desberdintasun batzuk izan direla esan behar da. Bihotz-anomalia, aho eta aurpegiko fisura, sortzetiko hidronefrosia, hipospadia eta gorputz-adarren anomalia gutxiago izaten direla antzeman da.

Sortzetiko bihotz-gaixotasunen prebalentzia txikiagoa da EAESAEn, batez ere bere osotasunean hartzen badugu; izan ere, bihotz-anomalia nagusien prebalentzia antzekoa da bi erregistroetan, eta bentrikuluen arteko eta aurikulen



arteko komunikazioen tasean dago soilik alderik aipagarriena. Horren arrazoia izan daiteke bizitzako lehen urtean bi anomalia horiei jarraipen handiagoa egiten zaiela, eta alde batera uzten direla, aldi horretan, itxi eta gero.

Aho eta aurpegiko fisurak dagokienez, aipagarria da EAESAEn prebalentzia txikiagoa dela, batez ere, ezpain-fisurak (ahosabaiko fisurarekin edo gabe), antzekoa baita ahosabai-fisuraren prebalentzia. Baliteke alde hori egoteko arrazoia, hipospadien kasuan bezala, azpierregristo bat izatea.

Halaber, desberdintasunak daude gorputz-adarretako anomalien prebalentzietan ere; tasa baxuagoak daude hankokerretan, aldaka-dislokazio edo -displasia, polidaktilian eta sindaktilian. Hankokerrari, aldaka-dislokazio edo -displasiari dagokienez, berriro ere anomalia horien azpierregristo bat izango genukeela esan daiteke, zehazki 2004, 2005 eta 2006 urteetan.

Aitzitik, anomaliatako batzuen prebalentzia handiagoa da EAESAEn: mikrozeftaliak, arnas aparatua (orokorrean), atzeko uretra-balbulak edo prune belly, sistema muskulu-eskeletikoa eta anomalia kromosomikoak.

Anomalia kromosomiko ia guztien tasa altuagoa da; horien artean, nabarmentzekoak dira Down-en sindromea, trisomia 18, Turner-en sindromea eta Klinefelter-en sindromea. Kasuak sakonki aztertuz identifikatu direla erakusten du horrek.

Hilkortasunak argi eta garbi egin du behera urteak igaro ahala. Hilkortasunaren joera ezagun hori, EAESAEn kasuan, azken 20 urteotan erditzeetan izandako hobekuntza handiak izan direlako ez ezik, jaio aurretik anomaliak detektatzeko teknikak hobetu direlako, eta erregistroko kasuaren definizioan sartuta dauden haurdunaldiaren borondatezko eteteak gehitu direlako ere gertatu da.

Erregistroaren kalitate-adierazleei dagokienez, batez bestekoaren gainetik daude diagnosiaren zehaztasuna, jasotako aldagaiak betetzea, datuak bidaltzearen egokitasuna, eta izendatzailei buruzko datuen eskuragarritasuna. Aipagarria da bihotz-anomalia batzuen prebalentzia baxua, zeinak azpierregristo bat edo kardiologia-datuaren iturririk ez izatea adieraziko lukeen, eta halaber kromosomikoak ez diren sindromeen prebalentzia baxua, jatorri genetikoko datu-iturrien gabeziarekin lotuko genukeena. Gainera, Eurocaten batez bestekoaren azpitik dago EAESAEn detektatu diren hilik jaiotako prebalentzia. Datu horrek, ziur aski, EAESAEn hilik jaiotako azpierregristo batekin dauka zerikusia.

Bukatzeko, azpimarratzekoa da garrantzitsua dela kasuak ahalik eta zehatzen erregistratzen jarraitzea, eskura dauden datu-iturri guztiak erabiliz. Halaber, kodetzeaz arduratzen diren langileei eutsi behar zaie, informazio-alborapena ahalik eta txikiena izan dadin.



Eskerrak ematea

Eskerrik beroenak ematen dizkiegu urte hauetan guztietan anomalien erregistroan lan egin duten eta datuak biltzea ahalbidetu duten pertsona guztiei.



I. TAULA. Identifikatutako kasu-kopurua, jaiotza-motaren arabera; 2004-2009 aldia.

URTEA	BIZ. JAIOAK	HILIK JAIOAK	HBE	GUZTIRA
2004	296	3	128	427
2005	277	2	149	428
2006	255	2	145	402
2007	350	3	142	495
2008	306	2	148	456
2009	275	2	185	462
GUZTIRA	1759 (% 65)	14 (% 1)	897 (% 34)	2670 (% 100)


II. TAULA. Jaiotzen kopuru osoa; 2004-2009 aldia

URTEA	BIZ. JAIOAK	HILIK JAIOAK	GUZTIRA
2004	19594	87	19681
2005	19715	77	19792
2006	20043	100	20143
2007	20596	85	20681
2008	21315	86	21401
2009	20928	95	21023
GUZTIRA	122191	530	122721

III. TAULA. Sortzetiko anomalien prebalentzia-tasak guztira (10.000 jaiotzako); 2004-2009 aldia.

URTEA	TASA
2004	217
2005	216
2006	199
2007	240
2008	213
2009	220
2004-2009	217

I. irudia. Sortzetiko anomaliak detektatu diren unea (jaio aurretik, jaio ondoren, ezezaguna); 2004-2009 aldia.



IV. TAULA. Jaiotza-mota eta sortzetiko anomaliak detektatu den unea; 2004-2009 aldia.

	2004			2005			2006		
	BIZIRIK (%)	HBE (%)	HILIK (%)	BIZIRIK (%)	HBE (%)	HILIK (%)	BIZIRIK (%)	HBE (%)	HILIK (%)
Jaiotzean	137 (46,28)	-	-	94 (33,93)	-	1 (50)	111 (43,53)	-	-
<astebete	28 (9,46)	-	-	30 (10,83)	-	-	18 (7,06)	-	-
1-4 aste	23 (7,77)	-	-	28 (10,11)	-	-	13 (5,10)	-	-
1-12 hilabete	32 (10,81)	-	-	47 (16,97)	-	-	13 (5,10)	-	-
Jaio aurretik	75 (25,34)	128 (100)	3 (100)	78 (28,16)	149 (100)	1 (50)	99 (38,82)	145 (100)	2 (100)
> 12 hilabete	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Jaio ondoren, une ezezagunean	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ezezaguna	1 (0,34)	-	-	-	-	-	1 (0,39)	-	-
GUZTIRA	296	128	3	277	149	2	255	145	2

	2007			2008			2009			GUZTIRA
	BIZIRIK (%)	HBE (%)	HILIK (%)	BIZIRIK (%)	HBE (%)	HILIK (%)	BIZIRIK (%)	HBE (%)	HILIK (%)	
Jaiotzean	144 (41,14)	-	-	111 (36,27)	-	2 (100)	97 (35,27)	-	1 (50)	698 (26,14)
< astebete	47 (13,43)	-	-	53 (17,32)	-	-	43 (15,63)	-	-	219 (8,20)
1-4 aste	27 (7,71)	-	-	20 (6,53)	-	-	19 (6,91)	-	-	130 (4,87)
1-12 hilabete	32 (9,14)	-	-	31 (10,13)	-	-	24 (8,73)	-	-	179 (6,70)
Jaio aurretik	96 (27,43)	142 (100)	3 (100)	78 (25,49)	148 (100)	-	82 (29,82)	185 (100)	1 (50)	1415 (53)
> 12 hilabete	1 (0,28)	-	-	1 (0,33)	-	-	-	-	-	2 (0,07)
Jaio ondoren, une ezezagunean	-	-	-	-	-	-	2 (0,73)	-	-	2 (0,07)
Ezezaguna	3 (0,86)	-	-	12 (3,92)	-	-	8 (2,91)	-	-	25 (0,93)
GUZTIRA	350	142	3	306	148	2	275	185	2	2670




V. TAULA. Anomalia zehatzen jaio aurreko diagnostia; 2004-2009 aldia.

Anomalia	Kasuak guztira	JAIO AURREKO DIAGNOSIA															
		<= 22. ASTEA			23-32. ASTEA			>= 33. ASTEA			EZEZAG.			GUZTIRA			
		B	H	E	B	H	E	B	H	E	B	H	E	B	H	E	G (%)
Anentzefalia	59	1	1	50	-	1	-	-	-	-	-	1	4	1	3	54	58 (98,30)
Ornomuin bifidoa	53	-	-	44	1	-	-	1	-	-	-	-	1	2	-	45	47 (88,68)
Hidrozefalia	70	-	-	46	1	-	-	4	-	-	1	-	-	6	-	46	52 (74,28)
Odol-hodi nagusien transposizioa	47	6	-	10	4	-	-	4	-	-	1	-	-	15	-	10	25 (53,19)
Ezkerreko barrunbeen hipoplasia	39	4	-	20	3	-	-	1	-	-	-	-	1	8	-	21	29 (74,36)
Erbi-ezpaina, ahosabaiko fisurarekin edo gabe	75	1 6	-	15	3	-	-	4	1	-	3	-	1	26	1	16	43 (57,33)
Hernia diafragmatikoa	32	3	-	6	3	-	1	3	-	-	-	-	-	9	-	7	16 (50)
Gastrokisia	18	6	1	11	-	-	-	-	-	-	-	-	-	6	1	11	18 (100)
Onfalozelea	53	3	1	38	-	-	-	2	-	-	2	-	-	7	1	38	46 (86,80)
Giltzurrun-agenesi bilaterala eta Potter-en sd.	8	-	-	7	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-	8	8 (100)
Atzeko uretra-balbulak edo prune belly	26	2	-	12	6	-	-	3	-	-	-	-	-	11	-	12	23 (88,46)
Gorputz-adarren murrizketa	71	4	-	33	2	-	-	2	-	-	2	-	1	10	-	34	44 (61,97)
Hankokerra	52	8	-	11	6	-	-	1	-	-	3	-	-	18	-	11	29 (55,77)
Trisomia 21 (Down-en sd.)	395	3	-	294	3	1	-	1	-	-	-	-	19	7	1	313	321 (81,26)
Trisomia 13 (Patau-ren sd.)	26	-	-	24	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-	26	26 (100)
Trisomia 18 (Edward-en sd.)	87	-	-	80	1	-	-	-	-	-	-	-	2	1	-	82	83 (95,40)

B: Bizirik jaiok G: Jaio aurrekoak guztira H: Hilik jaiok E: HBEak

II. IRUDIA. Identifikatutako kasu-kopurua, amaren adinaren eta jaiotza-motaren arabera; 2004-2009 aldia.





VI. TAULA. Kasuak guztira, anomalien azpimultzoen arabera; 2004-2009 aldiko totala.

Anomalia-mota	Kasu-kop.	%
Kromosomikoak	694	19,42
Bihotzeko sortzetiko gaixotasunak	609	17,04
Gernu-aparatua	444	12,42
Nerbio-sistema	352	9,85
Gorputz-adarra	340	9,51
Digestio-aparatua	217	6,07
Muskuluesketikoa	186	5,20
Genitala	155	4,34
Aho eta aurpegiko fisurak	138	3,86
Arnas aparatua	100	2,80
Beste malformazio batzuk	94	2,63
Abdomen-paretako akatsak	71	1,99
Sindrome genetikoak + mikrodelekzioak	65	1,82
Begiak	59	1,65
Belarriak, aurpegia eta lepoa	33	0,92
Sindrome teratogenikoak malformazioekin	17	0,47
GUZTIRA	3574	100

VII. TAULA. Kromosomopatia ohikoenen banaketa, jaiotza-moten eta amaren adinaren arabera, 2004-2009 aldia.

TRISOMIA 21 (Down-en sindromea)

JAIOTZA-MOTA	AMAREN ADINA								GUZTIR A
	<=19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	>45	EZEZAG.	
BIZ. JAIIOAK	1	4	12	24	23	5	-	12	81
HBEak	-	3	12	63	123	59	-	53	313
HILIK JAIIOAK	-	-	-	1	-	-	-	-	1
GUZTIRA	1	7	24	88	146	64	-	65	395

TRISOMIA 13 (Patau-ren sindromea)

JAIOTZA-MOTA	AMAREN ADINA								GUZTIR A
	<=19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	>45	EZEZAG.	
BIZ. JAIIOAK	-	-	-	-	-	-	-	-	-
HBEak	-	-	1	7	10	3	-	5	26
HILIK JAIIOAK	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	-	-	1	1	10	3	-	5	26



TRISOMIA 18 (Edward-en sindromea)

JAIOTZA-MOTA	AMAREN ADINA								GUZTIR A
	<=19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	>45	EZEZAG.	
BIZ. JAIIOAK	-	2	-	1	1	-	-	1	5
HBEak	-	-	3	18	36	10	2	13	82
HILIK JAIIOAK	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	-	2	3	19	37	10	2	14	87

47, XXY (Klinefelter-en sindromea)

JAIOTZA-MOTA	AMAREN ADINA								GUZTIR A
	<=19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	>45	EZEZAG.	
BIZ. JAIIOAK	-	-	-	1	6	2	-	1	10
HBEak	-	-	3	5	8	4	-	3	23
HILIK JAIIOAK	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	-	-	3	6	14	6	-	4	33

45, X (Turner-en sindromea)

JAIOTZA-MOTA	AMAREN ADINA								GUZTIR A
	<=19	20-24	25-29	30-34	35-39	40-44	>45	EZEZAG.	
BIZ. JAIIOAK	-	-	1	-	6	-	-	1	8
HBEak	-	3	5	13	8	1	-	9	39
HILIK JAIIOAK	-	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	-	3	6	13	14	1	-	10	47



VIII. TAULA. Sindrome, displasia eskeletiko, asoziazio, sekuentzia eta diagnostikatutako sindrome izan gabe ere sindrome izeneko malformazioen zerrenda, jaiotza-motaren arabera, 2004-2009 aldia.

MONOGENIKOAK EDO ETIOLOGIA EZEZAGUNEKOAK	BIZ. JAIQAK	HILIK JAIQAK	HBEak	GUZTIRA
Aarskog-en sindromea	1	-	-	1
Aniridia – Wilms tumorearen sindromea	2	-	-	2
Alpert-en sindromea (akrozefalosindaktilia)	2	-	-	2
Beckwith-Wiedeman-en sindromea	3	-	-	3
Cockayne-ren sindromea	2	-	-	2
Cornelia de Lange-ren sindromea	4	-	-	4
Crouzonen gaixotasuna (buru-hezur eta aurpegiko disostasia I. mota)	2	-	-	2
Di George-ren sindromea/ahosabai bigun, bihotz eta aurpegiko sindromea	3	-	-	3
X ahularen sindromea	-	-	3	3
Hallermann-Streiff-en sindromea	1	-	-	1
Pigmentu-inkontinentzia	1	-	-	1
Ivemark-en sindromea	2	-	-	2
Klippel-Feil-en sindromea	1	-	-	1
Klippel-Trenaunay-ren sindromea (-Weber) (Angioosteohipertrofia)	1	-	-	1
Larsen-en sindromea	1	-	-	1
Marfan-en sindromea	5	-	-	5
Meckel de Gruber	-	-	1	1
Noonan-en sindromea	1	-	-	1
Aho, hatz eta aurpegiko sindromea	1	-	-	1
Sindrome otopatodigitala	1	-	-	1
Prader-Willi-ren sindromea	1	-	-	1
Robinow-Silverman-Smith-en sindromea	2	-	-	2
Russell-Silver-en sindromea	1	-	-	1
Seckel-en sindromea	1	-	-	1
Smith-Lemli-Opitz-en sindromea	3	-	-	3
Treacher-Collins-en sindromea (baraila eta aurpegiko disostasia)	1	-	-	1
Ile, sudur eta falangeetako sindromea		-	1	1
Van der Woude-n sindromea	2	-	-	2
Williams-en sindromea	1	-	-	1



OSASUN ETA KONTSUMO
SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SANIDAD
Y CONSUMO
Viceconsejería de Sanidad
Dirección de Salud Pública

SINDROMES TERATOGENIKOAK	BIZ. JAIK	HILIK JAIK	HBEak	GUZTIRA
Fetuaren alkoholismo-sindromea	1	-	-	1
Sortzetiko zitomegalobirusa	9	-	4	13
Sortzetiko errubeola	1	-	-	1
Sortzetiko toxoplasmosia	1	-	-	1

ESKELETO-DISPLASIAK	BIZ. JAIK	HILIK JAIK	HBEak	GUZTIRA
Akondroplasia/Hipokondroplasia	1	-	3	4
Kondrodisplasia punctata	1	-	1	2
Displasia diastrofikoia		-	1	1
Ellis-vas Creveld-en sindromea (displasia kondroektodermikoa)	1	-		1
Jeune sindromea	1	-	1	2
Displasia metafisarioa	3	-		3
Sortzetiko exostosi anitza, aklasia diafisarioa	-	-	1	1
Osteogenesi inperfektua, II. motakoa	-	-	2	2
Displasia tanatoforikoa	-	-	2	2

MIKRODELEKZIOAK	BIZ. JAIK	HILIK JAIK	HBEak	GUZTIRA
Mikrodelekzio zehatzak	3	-	-	3

SINDROME KROMOSOMIKOAK	BIZ. JAIK	HILIK JAIK	HBEak	GUZTIRA
Katu-miaoaren sindromea (5p delekzioa)	1	-	2	3
Down-en sindromea (trisomia 21)	81	1	313	395
Edward-en sindromea (trisomia 18)	5	-	82	87
Klinefelter-en sindromea (47, XXY)	10	-	23	33
Patau-ren sindromea (trisomia 13)	-	-	26	26
Turner-en sindromea (45, X, monosomia X)	8	-	39	47

ASOZIAZIOAK	BIZ. JAIK	HILIK JAIK	HBEak	GUZTIRA
Goldenhar-en sindromea (begi, belarri eta ornoetako displasia)	3	-	-	3
Vater asoziazioa	3	-	-	3



SEKUENTZIAK	BIZ. JAIKAK	HILIK JAIKAK	HBEak	GUZTIRA
Banda amniotikoen sekuentzia	3	-	1	4
Kokzix-displasiaren sekuentzia	3	-	-	3
Moebiusen sekuentzia	2	-	-	2
Pierre Robinen sekuentzia	13	-	-	13
Potterren sekuentzia	-	-	6	6
Prune-bellyren sekuentzia	1	-	13	14
Sirenomelia	-	-	1	1

SINDROME IZAN GABE, SINDROME-IZENAK DITUZTEN MALFORMAZIOAK	BIZ. JAIKAK	HILIK JAIKAK	HBEak	GUZTIRA
Arnold-Chiari-ren sindromea	1	-	6	7
Sortzetiko artrogriposi anitza	4	-	3	7
Dandy-Walker-en sindromea/malformazioa	6	-	16	22
Hirschprung-en sindromea/gaixotasuna	22	-	-	22
Ezkerreko bihotz hipoplasikoaren sindromea	21	-	18	39
Eskuineko bihotz hipoplasikoaren sindromea	1	-	1	2
Megakiste/megaureteraren sindromea/sekuentzia	1	-	1	2
Zimitarraren sindromea	1	-	-	1

